



EUSKAL KULTURAREN BATZARREA

Euskara modernoa Euskal Herri modernoan

Euskal Kulturaren Batzarrea bideratzen ari garen honetan, astero astero eman ahal izan ditugu azken aldian gure gogoe-tak, bai eta gure kezkek agertu. Euskara gure hizkuntza nazionalak bere normalbidean gaurregun dituen arazo nagusi eta orokor batzuri buruz. Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra, lanbide horretan erakunde ofizialek eta herritarrek duten eginkizuna, normalkuntzaren helburutzat jarri ohi den elebitasunaren gezurra... guzti hori azaldu ahal izan dugu orain arte.

Gaurkoan, berriz, kultura modernoak euskarari aurrean ipinia dion desafioz eskaini nahi ditugu gure gogoeta-apurrak. Euskararen normalkuntzak baldintza nagusi bat du: Gure hizkuntzaren modernotzea. Modernotu ala hil! horra euskarari ipini zaion desafioa. Gaurko kultura modernoak bere alor eta maila guztietan dituen adierazpide premia ezberdinei egoki erantzuteko gauza izatera iristen ez baldin bada, desagertzera galduta dago euskara.

Orain dela hilabete batzu eman genuen beste artikulua batetan "Euskararen normalkuntza kulturazkoa" deitzen genuen hori. Eta honela genion orduan: "Euskarari dagokionez, ez dago zalantzarik, leize eta desfase sakona sortu dela beraren eta gaurko kultura modernoaren artean. Hortxe dago, hain zuzen, euskararen funtsezko drama. Hortxe du enbido handia, gaurregun bizirik irauteko". Euskal Kulturaren Batzarrearen abiaburu nagusia da honako hau: Euskara da Euskal Herriaren hizkuntza nazionala. Baina abiaburuan ipintzen dugun baieztapen hori helburu bat dugula konturaturik gaude; euskara dagoen egoeran ez bait da benetan Herri honen hizkuntza nazionala; hori izatea



Euskaldun guztiak euskara ikastera bultzatu eta hizkuntza egoki bat eskaini.

lortu behar dugu. Horretarako, euskararen berreskurapen osoa lortzea da gure helburua. Kultura modernoaren aldetik, Euskal Herri osoaren aldetik, euskaldun guztion aldetik. Berreskurapen osoa, ez "elebitasun osoa" da euskararen normalkuntzaren helburua.

Arazo larriena

Antonio Tovar-ek idatzi du: "El problema más urgente respecto del euskera es su transformación en lengua moderna" (El País). Zer esan nahi du funtsean euskararen modernotzeak?

Euskara kaletartzea...Euskara hiritartzea...Euskara teknika lantzea...Euskara modernotzea...Esamolde guzti horiek erabili izan dira azken hogeitabost urteotan euskararen gaur-

kotu beharra adierazteko. Funtsean gauza beretsua esan nahi izan da: Euskara, gaurko gure hizkuntza nazionala bihurtuko bada, artzain-hizkuntza, baserri-hizkuntza eta taberna-hizkuntza —edota poesi-hizkuntza— izate hutsetik, gaurko kultura hiritarren, industrialaren, teknikoaren, zientifikoaren, gaurko Unibertsitatearen, administrazioaren eta merkataritzaren hizkuntza izateko gaitu behar duela.

Euskaldun guztiak euskara ikastera eta erabiltzera bultzatuko baditugu, horien kulturako, laneko eta bizitza osoko premiei erantzungo dien hizkuntza eskaini beharko diegu: Kultura modernoaren adierazpide eta sorbide izango den hizkuntza. Eskaintza ona eta erakargarria izan behar du euskarak gaurko Euskal Herri modernoan.

Erabiliaz ibiliko da euskara

Euskarak gaitu beharra dauka: Batasuna, gramatikazko finkotasuna, lexikoa lantzea, sortzea eta finkatzea... Lan handia da hori; eta horretarako erakundeak eta koordinazioa beharrezkoak dira: bizkortu eta sendotu egin behar.

Baina euskara benetan modernotu eta gaurkotu, gaurko kultura modernoan erabiliaz egingo da. Kultura modernoaren eta euskararen arteko leizea ez du euskarak berezko patu gaiztoa. Ahaztuak ditugu dagoeneko Unamunoren hitz haiek: (El euskera) "carece de condiciones para servir de medio de expresión a un pueblo... en la vida espiritual moderna y constituye un grave obstáculo para la difusión de la cultura en mi país". Ahaztuta,

—euskararen atzerapenazken mendeotakoa da: horren ordezkapen-prozesua bideratu eta behartu zenetikoa, eta administrazioetik, irakaskuntzatik, merkatarizatik, komunikabide sozialetatik, enpresa industrialetatik baztertzuz joan zenetikoa. Historikoa da euskararen modernotzearen arazoa, ez berezkoa.

EGA eta LEGA

Euskararen gaurkotzea eta kultura modernorako gaitzea da gauza bat; eta horrekin oso loturik doana beste hau: kulturadun bakoitza bere kulturaren arabera euskara erabiltzeko gauza izatea. Kultura modernoan jantzia daudenek modernotuko dute euskara, bakoitza bere alorrean eta mailan euskara erabiltzeko gauza baldin bada. Euskara ez da modernotuko Euskaltzaindiak arauak ematen dituelako, edota UZEIk hiztegi tekniko-berezituak ateratzen dituelako, Euskal kulturadun guztioi bota zaigu euskararen modernotzearen enbidoa.


Zabaltzen ari da EGA (Euskarako gaitasun-agiria); gauza bat da, ordea, euskara arrunta ezagutzea, eta beste bat nor bere kulturaren alorrean eta mailan euskara landuta edukitzea. Ezagutu berria dugu proiektu bat Alfabetatze tekniko-ko ikastaroak izenekoak, bakoitza bere alorreko euskara tekniko-berezituan gaitzeko asmata. Urrats batzu emanak dira azken urteotan bide horretatik. Benetan uste dugu berehala eta gogoz bultzatu beharrekiko proiektua dela, horretarako plan eta programa iraunkorra landu ondoren.

Ez litzateke zorakeria izango, EGA titulua ematen den bezala, LEGA (Lanbide-Euskarako Gaitasun-Agiria) asmatzea eta instituzionalitzea.

EKB



Ez litzateke txorakeria EGA ematen den bezala LEGA bat sortzea.



Euskal kulturari bota zaio euskara modernotzearen enbidoa.